

## WEBERAKO NOLA IDATZI

### INFORMAZIO OROKORRA

**IRAUPENA** 20 ordu

**HARTZAILEAK**

EAEko Herri Administrazioetako langileak . Derrigorrezkoa da 3.HE gaitututa izatea.

**HAUTATZE IRIZPIDEAK**

Eskaerak egin dituzten erakunde guztietako gutxienez langile bana onartzea lehenetsiko da.

**LEHENTASUNA**

Erabilera Planaren eraginpean dauden langileek lehentasuna izango dute ikastaro honetan parte hartzeko.

**IKASTARO ESKAINTZA**

Urriaren 2tik 31ra

**ESKATZEKO AZKEN EGUNA**

Irailaren 15a

**ONIRITZI EPEA**

Irailaren 18tik 22ra

**BAJA EMATEKO EGUNAK**

Urriaren 2a eta 3a

### ZER LORTU NAHI DA

**HELBURU OROKORRAK**

Pantailan irakurtzeko testu egokiak idaztea da ikastaroaren helburua. Horretarako, papererako sortu ditugun idazkiak pantailarako egokitzen ikastea ezinbestekoa da, ez baita gauza bera weberako idaztea, edo paperean irakurtzeko.

**HELBURU ZEHATZAK**

Irakurtzeko modu berri baten aurrean gaude eta horrek testuen idazketan eragiten du. Ikastaro honetan ikasiko dugu:

- Orientazio eta nabigazio tresna egokiak aukeratzeko
- Testuak egoki pantailaratzen eta egituratzen
- Testuei luzera egokia ematen
- Ideiak paragrafoka antolatzen
- Esaldi egokiak idazten
- Lexikoa hobetzeko irizpideak jarraitzen
- Diseinu egokia ematen
- Zuzenketari dagokion garrantzia ematen

**GAITASUNAK**

Ikastaroa egin ondoren ikaslea gai izango da web orrirako testuen eta papererako testuen arteko aldea ikusteko, eta papererako idatzitako testuak pantailarako behar bezala egokitzeko.

### PROGRAMA ETA EBALUAKETA

**METODOLOGIA**

Zazpi unitatez eta azterketa batez osatuta dago ikastaroa. Unitatez unitate edukia landuko ditugu, eta haiei dagozkien ariketak egingo. Bukaeran azterketa izango da. Zalantzak argitzeko foroa erabiliko dugu, eta tutorea izango da gidari ikastaroak dirauen artean .

## WEBERAKO NOLA IDATZI

### 1. UNITATEA: WEBERAKO IDAZTEA

- Komunikazio mota berria
- Irakurtzeko modu berri bat ulertzen
- Nabigazioa
- Nabigazio eta orientazio tresnak
- Informazioaren arkitektura
- Orrien pisua
- Erabilerraztasuna
- Weberako testuak idaztea trebetasun zehatza da

### 2. UNITATEA : PAPERETIK PANTAILARA

- Testuak moldatu beharra
- Pantailan irakurtzekoa ala deskargatzekoa?
- Atxikitako dokumentuak
- Pantailan, baina nola?
- Ondo antolatutako testuak
- Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak
- Testua antolatzeko egitura tradizionala: piramidearen egitura
- Testua antolatzeko egitura nagusia: piramide iraulia
- Testuen luzera
- Nola laburtu

### 3. UNITATEA : PARAGRAFOAK

- Paragrafoen garrantzia
- Paragrafoen luzera
- Paragrafoen egitura
- Paragrafoak arintzeko baliabide batzuk

### 4. UNITATEA: ESALDIAK

- Esaldi labur eta sinpleak , hoberen ulertzen direnak
- Esaldi luzeak eta testuen erritmoa
- Saihestu perpaus ugaridun esaldiak
- Zaindu tartekiak
- Arreta berezia erlatibo eta gerundioekin
- Ekidin estilo nominala eta erabili aditz esanguratsuak
- Agintera, aukera aproposa eginkizunak adierazteko
- Jarri informazio garrantzitsuena esaldiaren hasieran
- Puntuazio egokia erabili
- Testu antolatzailleak erabili
- Kendu garrantzirik gabeko elementuak
- Egitura anbiguen arriskua
- Erabili esaldi aktiboak
- Izenordainen erabilera
- Idatzi esteka egokiak

### 5. UNITATEA: LEXIKOA

- Hitz zehatz eta ezagunak
- Lexiko egokirako gomendioak
- Hizkera sexistaren ajeak

## PROGRAMA



## WEBERAKO NOLA IDATZI

### 6. UNITATEA: DISEINUA

- Ikuspegi bisuala
- Ortotipografia
- Bestelako elementuak

### 7. UNITATEA: ZUZENKETA

- Weberako testuak zuzentzearen garrantzia
- Zuzenketarako gomendioak

### AZTERKETA

**EBALUAZIOA**

Ikastaroaren ebaluaziorako unitateetako 12 ariketak eta bukaerako azterketa izango dira kontuan.

**IKASTAROAREN  
BALORAZIOA**

Ikasleen lineako gogobetetze-inkesta eta irakaslearen balorazio inkesta

**ZIURTAGIRIA:  
APROBETXAMENDUA**

Unitateetan proposatzen diren ariketak egin eta horien %60 gainditzea eta azterketa gainditzea

**137€**

**PREZIOA**

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena.  
EHAA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. zk.